



CARLTON HOTELEAN BIZIKIDETZA EGOKIA IZATEKO ARAUAK ETA GOMENDIOAK

Zer eratako maskotak onartzen dira Carlton hotelean, eta zenbat okupatutako gela bakoitzeko?

Txakurrak eta katuak bakarrik onartzen ditugu, **gela bakoitzeko bat, eta betiere 10 kg baino gutxiago pisatzen badute**. Ez dira onartuko pisu horretatik gorako txakurrak.

Era guztietako geletan har dezakete ostatu maskotek?

Carlton hotelak gela-serie mugatu bat du maskotekin ostatu hartu ahal izateko (gela estandarrek). **Erreserba egiteko garaian, eskatu egin behar da ba ote dagoen maskotak onartzen dituen gelarik**, hotelak jakinaraziko du badagoen halakorik ala ez. Katuen kasuan, garraio-kaxan egon beharko dute hotelean dauden bitarte guztian.

Gera daiteke bakarrik nire maskota hoteleko gelan?

Ez, maskotak beti jabearekin egon behar du. Inola ere ezingo dira utzi maskotak bakarrik gelan. Arau hori segurtasun-arrazoiak direla eta ezarria da, eta hoteleko gainerako bezeroekin bizikidetza ona bermatzeko; hala, alferrikako arriskuak saihestuko dira, bai eta ingurune ezezagun batek eraginda urduri egon litekeen animalia baten zaratek eta abarrek eragindako endredoak ere. Maskota falta denean garbituko da beti gela.

Egon liteke nire maskota hoteleko guztientzako eremuetan?

Guztientzako eremuei dagokienez, hoteleko igarotze-tokietan, korridoreetan eta sarreran bakarrik egon ahalko dira maskotak, beti jabea lagun dutela: txakurren kasuan, beti uhalez lotuta, eta katuak, berriz, garraio-kaxan. Behar bezala identifikatutako gida-txakurrek bakarrik izango dute hoteleko instalazio guztietan ibiltzeko baimena, jabearekin batera.

Kobratzen du hotelak zenbateko osagarriren bat maskota hartzeagatik?

Ez, onarpena doan da.

Zer erantzukizun sortzen da, hoteleko instalazioetan edo beste pertsona batzuei kalteak eraginez gero?

Maskotek hotel barruan eragindako kalteen ardura haien jabearena izango da, edo gelaren titularrarena.

Badu hotelak maskotentzako aisia-eremuren bat?

Hotelak ez du maskotentzako eremu espezifikorik, eta maskotekin ostatu hartzen duten bezero guztiei gomendatzen die eska dezatela informazioa gertuen dagoen parkeari buruz (300 m).